

## **KONTSEILUETAN ETA BATZORDEETAN KIDEEEN PARTE HARTZEA BERMATZEAREN INGURUKO MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, kontseiluetan eta batzordeetan kideen parte hartzearen egoera dela eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko maiatzaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Alkateak, apirilaren 24an, asteartean, bi deialdi luzatu zizkigun: 10:00etan Turismo Kontseilua eta 11:00etan Donostia Kiroleko Artezkaritza Kontseilua, biak udaletxeko Urgull aretoan. Lehenengoa luzatu zela-eta, bigarrenera (azkenean Ulia aretoan egin zen) azken puntura iritsi zen behean sinatzen duen zinegotzi hau (galde-eskeak). Bi deialdiak egiteko moduarekiko neure desadostasuna adierazi nuen bi kontseiluetan.

Hau gutxi balitz bezala, aste berean, apirilaren 27an, ostiralean, 09:30ean Kontuen Batzorde Bereziaren eta 11:00etan Anoetako Kiroldetik Kontseiluaren deialdiak jaso nituen. Lehenengoa bukatu eta bigarrenera joan nintzenez kontseilua amaituta zegoen.

Alkateak kontseiluetan eta batzordeetan parte hartzeko zinegotzian eskubideak bermatu behar ditu, baina ez da hori gertatzen ari.

Batzordean Viles jaunak aitzakiaz betetako argudioak erabili zituen, inongo azalpenik eman gabe eta egoera hobetzeko inongo konpromisorik hartu gabe.

Honegatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozioa aurkezten du

### **MOZIOA**

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio batzordeen eta kontseiluen deialdiak modu egokian kudea ditzala, haietako kideek bi bilera batera izan ez ditzaten.

Donostian 2018ko maiatzaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia